**LEHENENGO ARIKETA, LEHENENGO ZATIA**
**TEST-GALDETEGIA (GAITEGI OROKORRA)**

1. **NAZIOAREN SUBIRANOTASUNA:**
   a. Adinez nagusiak diren herritarretan datza.
   b. Kongresuan eta Senatuan datza.
   c. Herrian datza.
   d. Erregean datza

2. **KONSTITUZIOAK AITORTUTAKO BILTZEKO ESKUBIDEARI DAGOKIONEZ, IRAGANBIDE PUBLIKOETAKO BILEREN ETA KALE AGERRALDI EDO MANIFESTAZIOEN KASUAN:**
   a. Ezingo dira inolaz ere debekatu, ezta arriskurik badago ere, baina, kasu horretan, segurtasun zerbitzu indartsua ezarri beharko da.
   b. Ez da beharrezkoa izango agintariei aurretiko baimena eskatzea, ezta jardueraren berri ematea ere.
   c. Pertsonentzako arriskua badakarte bakarrik debekatu ahal izango dira.
   d. Debekatu egin ahal izango dira ordena publikoa asaldatzeko arrazoi oinarridunak badaude.

3. **EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA ESTATUTUAREN ATARIKO TITULUAREN ARABERA:**
   a. Erakunde komunen egoitza Vitoria-Gasteizen finkatzen da.
   b. Euskal Herriko ikurrina gurutzebikoa da, hondo gorrian zeharkako gurutze zuria eta horien artean gurutze berdea dituena.
   c. Autonomia Erkidegoak Euskal Herria du izena.
   d. Arabak, Gipuzkoak eta Bizkaiak dute, Nafarroak bezala, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoa osatzeko eskubidea.

4. **AUTONOMIA ESTATUTUAREN ARABERA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOARI DAGOKIO ESTATUKO LEGEAK BETEARAZTEA GAI HONETAN:**
   a. Gizarte laguntza.
   b. Foru Zuzenbide Zibila eta berezia gorde, aldatu eta garatzea.
   c. Probintzia eta udalerrietako ondasunen araubidea.
   d. Espetxe legedia.

5. **EAE-KO AUTONOMIA ESTATUTUAREN ARABERA, ATARIKO TITULUKO ESKUMENAK ZERA DIRA:**
   a. Eskumen linguistikoak.
   b. Oinarrizko eskubideei dagozkienak.
   c. Eskumen itzurkorrak.
   d. a) eta b) erantzunak zuzenak dira.

**6. UDALERRI BATEAN BAINO GEHIAGOTAN BIZI DENAK UDAL ERROLDA HONETAN INSKRIBATU BEHAR DU:**

a. Ohiko bizitokia kokatuta dagoen udalerriko erroldan.
b. Urtean denborarik gehien egiten duen udalerriko erroldan.
c. Udalerri horietako edozeinetako erroldan.
d. Ez du haietako batean ere inskribatu beharrik.

**7. TOKI ARAUBIDEAREN OINARRIEN LEGEAREN ARABERA, BIZTANLERIA HANDIKO UDALERRIEN ANTOLAMENDU ARAUBIDEA APLIKATUKO ZAIE:**

a. 50.000 biztanle baino gehiagoko biztanleria duten udalerriei.
b. 150.000 biztanle baino gehiagoko biztanleria duten udalerriei.
c. Probintziako hiriburu, autonomietako hiriburu edo autonomia erakundeen egoitza diren udalerriei, bertako legebiltzarrek horrela erabakitzen badute, udal bakoitzaren ekimenez.
d. 75.000 biztanle baino gehiagoko biztanleria duten udalerriei.

**8. ADIERAZI ZEIN DEN ERANTZUN OKERRA. TOKI ARAUBIDEAREN OINARRIEN LEGEAREN 133. ARTIKULUAREN ARABERA, EKONOMIAREN ETA FINANTZEN KUDEAKETAK IRIZPIDE HAUEK BETEKO DITU:**

a. Zerbitzuen kostuen jarraipena ez da sartzen eskakizun bezala.
b. Toki ogasunak arautzen dituen Legean kontabilitateari buruz jasotako aurreikuspenetara lotu behar da nolanahi ere kontabilitatea.
c. Helburu bezala aurrekontuaren egonkortasuna zaintzea, hori arautu dezan legedian xedatutakoarekin bat etorriz.
d. Ekonomiaren eta finantzen kudeaketaren kontabilitatea eta ikuskapena banatuta izatea.

**9. BILBOKO UDALEKO ARAUDI ORGANIKOAREN ARABERA, BOZKETAK IZAN DAITEZKE:**

a. Arruntak, ezohikoak, deialdi bidezkoak eta sekretuak.
b. Arruntak, deialdi bidezkoak eta sekretuak.
c. Arruntak, izenezkoak, deialdi bidezkoak eta sekretuak.
d. Arruntak, izenezkoak eta sekretuak.

**10. BILBOKO UDALEKO GOBERNUARI ETA ADMINISTRAZIOARI BURUZKO ARAUDI ORGANIKOAREN ARABERA, GOBERNU BATZORDEAREN ERABAKIAK AKTAN JASO BEHARKO DIRA:**

a. Eta zinegotzi idazkariak akta hori egin eta sinatuko du.
b. Eta Gobernu Batzordearen Bulegoko titularrak akta hori egin, argitaratu eta sinatuko du.
c. Eta Aholkularitza Juridikoko titularrak akta hori egin, argitaratu eta sinatuko du.
d. Udalbatzako idazkari nagusiak akta hori egin, argitaratu eta sinatuko du.

11. **BILBOKO HIRIKO BARRUTIETAKO ANTOLAKUNTZA ETA FUNTZIONAMENDU ARAUDIAK IZAERA ORGANIKOA DU, ETA ONESTEN DA:**
    a. Tokiko Gobernu Batzordearen bidez.
    b. Udalbatzaren gehiengo soilaren bidez.
    c. Udalbatzaren gehiengo osoaren bidez.
    d. Barruti Kontseiluen gehiengo osoaren bidez.

12. **BILBOKO UDALEKO GOBERNUARI ETA ADMINISTRAZIOARI BURUZKO ARAUDI ORGANIKOAREN ARABERA, GOBERNU BATZORDEAREN BULEGOKO ZUZENDARIAK:**
    a. Bileretako deialdiak, gai zerrendak eta aktak artxibatu eta zaindu behar ditu.
    b. Deialdiak bidali behar dizkie Gobernu Batzordeko kideei.
    c. Erabakien jakinarazpena zuzena eta leiala dela bermatu behar du.
    d. Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

13. **ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 39/2015 LEGEAREN ARABERA, PROZEDURAREN ANTOLAMENDUARI DAGOKIONEZ, ARAU BATEN ONDORIOZ ESPEDIENTE ELEKTRONIKO BAT BIDALI BEHARRA DAGOENEAN:**
    a. Hura izapidetu duen langile publikoaren ezaugarrien eta bitarteko erabilgarrien arabera bidaliko da.
    b. Ez da beharrezkoa izango aurkibide batekin batera bidaltzea.
    c. Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionalean eta Elkarreragingarritasunari buruzko Arau Teknikoetan aurreikusitakoaren arabera bidaliko da, osorik, orrialdekaturik, autentifikaturik eta dituen dokumentu guztien aurkibide orobat autentifikatu batez lagundurik.
    d. Aurreko erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

14. **ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 39/2015 LEGEAREN ARABERA, NORI DAGOKIO ERABAKITZEA FROGALDI BAT HASIKO DELA, INTERESDUNEK ALEGATUTAKO EGITATEAK EGIAZTATZEKO EDO PROZEDURAREN IZAERAK HALA ESKATZEN BADU?:**
    a. Hierarkian goragoko mailakoari.
    b. Prozedurako interesdunei.
    c. Prozeduraren instrukzio-egileari.
    d. Zuzenak dira a) eta b) erantzunak.

15. **ZERBAIT EZ EGITEKO EDO JASATEKO BETEBEHAR GUZTIZ PERTSONALA EZARTZEN DUTEN ADMINISTRAZIO-EGINTZAK BETEARAZ DAITEZKE:**
    a. Herritarrak zuzenean derrigortuz, legeak hori espresuki baimentzen duen kasuetan.
    b. Ondarearekiko premiamenduz.
    c. Betearazpen subsidiarioz.
    d. Hertsatzeko isunaz.

16. **EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO 10/1982 OINARRIZKO LEGEAREN ARABERA, AUTONOMIA ERKIDEGOAREN MENPEKO ERREGISTRO PUBLIKOETAN DOKUMENTUAK LERROKATZEA EGINGO DA:**
    a. Gaztelaniaz, euskarazko itzulpenarekin.
    b. Euskaraz, gaztelaniazko itzulpenarekin.
    c. Dokumentuok idatzita dauden hizkuntza ofizialean.
    d. Erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

17. **EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO 10/1982 OINARRIZKO LEGEAREN ARABERA, HERRITAR GUZTIEK JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAREKIKO HARREMANETAN:**
    a. Beren aukerako hizkuntza ofizialaz baliatu ahal izango dute, eta gaztelaniara itzultzeko eskatu.
    b. Euskal Herriko hizkuntza propioaz baliatu ahal izango dute, eta gaztelaniara itzultzeko eskatu.
    c. Beren aukerako hizkuntza ofizialaz baliatu ahal izango dute, inolako itzulpenik ezin eska dakiekeela.
    d. Erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

18. **EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO 10/1982 OINARRIZKO LEGEAREN ARABERA, HERRITAR GUZTIEK JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAREKIKO HARREMANETAN:**
    a. Beren aukerako hizkuntza ofizialaz baliatu ahal izango dute, eta gaztelaniara itzultzeko eskatu.
    b. Euskal Herriko hizkuntza propioaz baliatu ahal izango dute, eta gaztelaniara itzultzeko eskatu.
    c. Beren aukerako hizkuntza ofizialaz baliatu ahal izango dute, inolako itzulpenik ezin eska dakiekeela.
    d. Erantzunetako bat bera ere ez da zuzena

19. **EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO 10/1982 OINARRIZKO LEGEAREN ARABERA, EUSKARAREN IRAKASKUNTZAKO ERABILERA ARLOKO HERRI-AGINTEEN BETEBEHARRAK DIRELA ETA:**
    a. Legebiltzarrak eta Jaurlaritzak neurri aproposak hartuko dituzte Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko irakaskuntzan elebitasuna gero eta orokorragoa izan dadin.
    b. Jaurlaritzak neurri aproposak hartuko ditu pixkanaka Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko irakaskuntzan elebitasuna gero eta orokorragoa izan dadin.
    c. Eusko Legebiltzarrak legeak egingo ditu, euskal gizartearen elebitasuna orokortzeko.
    d. Erantzun guztiak okerrak dira.

**20. LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA, ENPRESABURUAK:**

a. Langileak laneko arriskuetatik prebenitzeko eskubidea du.
b. Langileak laneko arriskuetatik babesteko eskubidea du.
c. Langileak laneko arriskuetatik babesteko betebeharra du.
d. Erantzun guztiak zuzenak dira.

**21. LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO LEGEAN XEDATUTAKOAREN ARABERA, LANGILEEN BETEBEHARRA DA:**

a. Laneko arriskuetatik babesteko erosi dituen bitartekoak eta babes ekipamendua behar bezala erabiltzea.
b. Enpresaburuarekin lankidetzan aritzea, ahalik eta eraginkortasun handiena eta etekin ekonomikorik handiena lortzeko.
c. Enpresaburuak emandako babes-ekipamenduak modu egokian erabiltzea, enpresaburuaren jarraibideekin bat etorriz.
d. Langileak ez du betebeharrik, enpresariak baizik.

**22. LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA, LANEAN ERABILITAKO EDOZEIN MAKINA, TRAMANKULU, TRESNA EDO INSTALAZIO DA:**

a. Lan-ekipamendua.
b. Langilearen arriskuen prebentzioa.
c. Laneko prebentzioa.
d. Lan-arriskua.

**23. 2016/679 (EB) ERREGELAMENDUAREN ARABERA, ESALDI HAUETATIK ZEIN DA OKERRA?**

a. Pertsona juridiko diren interesdunek eskubidea izango dute tratamendu automatizatu batean soilik oinarrituta dagoen eta beraiengan ondorio juridikoak edo antzeko ondorio esanguratsuak dituen erabaki baten objektu ez izateko, profilak egitea izan ezik.
b. Interesdunek eskubidea izango dute tratamendu automatizatu batean soilik oinarrituta dagoen eta beraiengan ondorio juridikoak edo antzeko ondorio esanguratsuak dituen erabaki baten objektu ez izateko, profilak egitea izan ezik.
c. Interesdunek eskubidea izango dute tratamendu automatizatu batean soilik oinarrituta dagoen eta beraiengan ondorio juridikoak edo antzeko ondorio esanguratsuak dituen erabaki baten objektu ez izateko, profilak egitea barne.
d. Esaldi guztiak dira okerrak.

**24. DATU PERTSONALAK BABESTEARI ETA ESKUBIDE DIGITALAK BERMATZEARI BURUZKO ABENDUAREN 5EKO 3/2018 LEGE ORGANIKOA EZ ZAIE APLIKATZEN:**

a. Datuen babeserako 2016/679 (EB) Erregelamendu orokorrak araututako eremuko tratamenduei.
b. Gai sailkatuen babesari buruzko araudien eraginpean dauden tratamenduei.
c. Hildakoei buruzko datuen tratamenduei, kasu guztietan.
d. 3/2018 Lege Organikoa kasu horietan guztietan aplikatzen da.

**25. DATU PERTSONALAK BABESTEARI ETA ESKUBIDE DIGITALAK BERMATZEARI BURUZKO ABENDUAREN 5EKO 3/2018 LEGE ORGANIKOAREN ARABERA, SEGURTASUN DIGITALERAKO ESKUBIDEA:**

a. Interneten ez dago.
b. Erabiltzaileek segurtasunerako eskubidea dute Internet bidez bidali eta jasotzen dituzten komunikazioen gainean.
c. Erabiltzaileek segurtasunerako eskubidea dute Internet bidez bidaltzen dituzten komunikazioen gainean, baina ez, jasotzen dituztenen gainean.
d. Erabiltzaileek segurtasunerako eskubidea dute Internet bidez jasotzen dituzten komunikazioen gainean, baina ez, bidaltzen dituztenen gainean.

**26. 2016/679 (EB) ERREGELAMENDUAREN ARABERA, TRATAMENDUA ZILEGIA IZANGO DA, BALDIN ETA:**

a. Interesdunak bere datu pertsonalak tratatzeko adostasuna eman badu helburu zehatz bati edo gehiagori begira.
b. Tratamendua beharrezkoa bada tratamenduaren arduradunari aplikagarria zaion lege-eginbeharra betetzeko.
c. Interesdunak bere datu pertsonalak tratatzeko adostasuna eman badu helburu zehaztugabe bati edo gehiagori begira.
d. a) eta b) erantzunak zuzenak dira.

**27. LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA, LANEAN ERABILITAKO EDOZEIN MAKINA, TRAMANKULU, TRESNA EDO INSTALAZIO DA:**

a. Lan-ekipamendua.
b. Langilearen arriskuen prebentzioa.
c. Laneko prebentzioa.
d. Lan-arriskua.

**28. XEDETZAT TELEKOMUNIKAZIO SISTEMA ETA EKIPOEN ALOKAIRUA DUTEN KONTRATUAK JOKO DIRA:**

a. Obra-kontratutzat.
b. Hornidura-kontratutzat.
c. Zerbitzu-kontratutzat.
d. Aurreko aukeretako bat ere ez da zuzena.

**29. EZ DIRA BOTERE ESLEITZAILETZAT JOKO SEKTORE PUBLIKOKO KONTRATUEN LEGEAREN XEDEETARAKO:**

a. Administrazio Publikoak.
b. Fundazio publikoak.
c. Alderdi politikoak.
d. Eliza.

**30. GIZA BALIABIDEEN BEHARRIZANAK DAUDENEAN, ETA, HORRETARAKO, AURREKONTUKO DIRU-IZENDAPENA EGONDA, LANGILE BERRIAK SARTZEA BEHARREZKOA DENEAN HAU EGIN BEHAR DA:**

a. Enplegu Publikorako Eskaintza edo langile-beharrizanak betetzeko antzeko beste kudeaketa-tresnaren bat erabili.
b. Enplegu Publikorako Eskaintza.
c. Lanpostuen zerrenda.
d. Iragarkia EBEO Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean.

**31. ENPLEGU PUBLIKORAKO ESKAINTZAK EDO HAIEN ANTZEKO BESTE TRESNA BATEK GIZA BALIABIDEEN PLANIFIKAZIOTIK ERATORRITAKO NEURRIAK EDUKI AHAL IZANGO DITU.**

a. Gezurra.
b. Egia, neurri horien artean ez baldin badaude lan-antolaketako sistemei eta lanpostuen egituren aldaketei buruzko aurreikuspenak.
c. Egia.
d. Gezurra, giza baliabideen planifikazioa Enplegu Publikorako Eskaintzak 1.000 lanpostu edo gehiagoko deialdia aurreikusten duen urte batean onartzen baldin bada izan ezik.

**32. LANGILEEN ERREGISTROARI DAGOKIONEZ, TOKI ERAKUNDEEK BEHAR ADINA BALIABIDE FINANTZARIO EDO TEKNIKO EZ DUTENEAN,**

a. Autonomia Erkidegoek eta haiek soilik lagunduko diete.
b. Estatuko Administrazio Orokorrak eta hark soilik lagunduko die.
c. Estatuko Administrazio Orokorrak eta Autonomia Erkidegoek lagunduko diete, 5.000 biztanle baino gutxiago edo 2.999.999 euro baino gutxiagoko aurrekontua baldin badute.
d. Foru-administrazioek beharrezko laguntza teknikoa eskainiko diete toki-administrazioei, legeak langileen erregistroaren arloan eskatzen dena beteko dela bermatzeko.

**33. TOKI ADMINISTRAZIOAN, AHALMEN PUBLIKOAK BETETZEN EDO INTERES OROKORREN ZAINTZAN PARTE-HARTZE ZUZENA EDO ZEHARKAKOA ESKATZEN DUTEN FUNTZIOAK BETETZEA SOILIK HONAKO HAUEI ERRESERBATUTA DAGO:**

a. Behin-behineko langileei.
b. Karrerako funtzionarioei.
c. Lan-kontratuko langileei.
d. Kargu publikoei.

**34. TOKI ADMINISTRAZIOKO LANPOSTUEN HORNIDURARAKO DEIALDIETAN PARTE HAR DEZAKE:**

a. Deialdia egiten duen erakundeko funtzionarioek soilik.
b. Edozein administrazio publikotako funtzionarioek, kasu guztietan.
c. Edozein administrazio publikotako funtzionarioek, haien parte-hartzea lanpostuen zerrendek ezarritakoaren mende geratzen delarik.
d. Edozein administrazio publikotako funtzionarioek, haien parte-hartzea aurrekontu ereduek ezarritakoaren mende geratzen delarik.

**35. UDALERRIETAN, LANPOSTUEN ZERRENDAK HONAKO IZAERA HAU DUTEN ANTOLAKETA TRESNAK DIRA:**

a. Pribatua.
b. Publikoa.
c. Publikoa, Udal Araudi Organikoak besterik ez baldin badio.
d. Pribatua, Udal Araudi Organikoak besterik ez baldin badio.

**36. TOKI ERAKUNDEEN ETA HAIEN ORGANISMO AUTONOMOEN ETA PARTZUERGOEN AURREKONTUETAKO BAKOITZAK EZ DU EDUKIKO HONAKO ELEMENTU HAU:**

a. Ekitaldian likidatu beharreko eskubide ekonomikoen sarreren gutxi gorabeherako egoera bat.
b. Ekitaldian egin beharreko inbertsioen eranskin bat Zoruaren Ondare Publikoari dagozkionen eta gainerakoen arteko bereizketa eginda.
c. Langileen eranskin bat, aurrekontu hornidura duten postuen zerrenda indibidualizatuarekin, ordainsarien eta gizarte gastuen arteko bereizketa eginda.
d. Ondare garbiaren aldaketen aurreikuspenezko egoera bat.

**37. ZER KREDITU IZANGO DIRA ZABALGARRIAK ESPRESUKI HALAKOTZAT AGERTU GABE AURREKONTUETAKO GASTUEN EGOERAN?**

a. Pertsonalaren nahitaezko gizarte aurreikuspeneko araubideari buruzko betebeharrei dagozkien ordainketakoak.
b. Konpromisokoak.
c. Ordainketakoak oro har.
d. Zabalgarriak izateko, izaera horrekin agertu behar dute espresuki gastuen egoeran.

**38. ERABILI GABEKO AURREKONTU KREDITUAK HONAKO EGOERA HAUETAKO BATEAN EGON AHAL IZANGO DIRA:**

a. Kreditu erabilgarriak.
b. Erabiltzeko dauden kreditu atxikigarriak.
c. Kreditu ez erabilgarriak.
d. Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**39. ARAUBIDE ERKIDEKO UDALERRIETAN UDAL ARAUDI ORGANIKOAREN ONARPENAREN ARDURA DU:**

a. Udaleko idazkariak.
b. Alkateak, kasu guztietan .
c. Tokiko Gobernu Batzarrak, kasu batzuetan.
d. Udalbatzak, kasu guztietan.

**40. BIZTANLERIA HANDIKO UDALERRIETAN UDAL ORDENATZEN ONESPENA DA:**

a. Eskuordeezina.
b. Eskuordegarria.
c. Eskuordeezina, Tokiko Gobernu Batzarrak besterik erabaki ezean.
d. Eskuordegarria, Tokiko Gobernu Batzarrak besterik erabaki ezean.

**41. PROBINTZIETAN, ORDENANTZAK ONESTEKO ARDURA DAUKA:**

a. Diputazioaren osoko bilkurak.
b. Diputazioko Gobernu Batzarrak.
c. Diputazioko Presidenteak.
d. Diputazioko ikerketa, argibide edo kontsultako organoek.

**42. DIPUTATUEN KONGRESUKO DIPUTAZIO IRAUNKORREKO PRESIDENTEA DA:**

a. Gehiengoa duen alderdikoa.
b. Jarleku gehien duen alderdiko bozeramailea.
c. Ganberako Presidentea.
d. Talde Parlamentarioen Bozeramaileek aukeratutakoa.

**43. HERRIAREN DEFENDATZAILEAREN AURREAN KEXA ANONIMOA AURKEZTEN BALDIN BADA:**

a. Izapidetu egin beharko du.
b. Kontua interes orokorrekoa baldin bada baino ez du izapidetuko.
c. Ez dago izapidetzera behartua.
d. Haren esku uzten da izapidetu edo ez erabakitzea.

**44. ARARTEKOA IZENDATUKO DU:**

a. Legebiltzarrak.
b. Gobernu Kontseiluak.
c. Lehendakariak.
d. Hiru Lurralde Historikoetako Batzar Nagusien baterako akordioak.

**45. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ESTATUTUKO 10. ARTIKULUAREN ARABERA, ZEIN DA EDO DIRA AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ESKUMEN ESKLUSIBO ETA ESTATUAREKIN EZ PARTEKATUAK?**

a. Titulartzat Autonomia Erkidegoa duten jabari publikoko eta ondarezko ondasunak.
b. Ingurumena eta ekologia.
c. Euskadiko arrantza sektorearen antolamendua.
d. Kredituen, bankuen eta aseguruen orientabidea.

**46. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ESTATUTUAREN ARABERA, HONAKO ESKUMEN HAUEN ARTEAN ZEIN EZ DA ESKLUSIBOKI EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOARENA?:**

a. Erregimen lokala eta Euskadiko eta bertako toki administrazioko funtzionarioen Estatutua.
b. Gizarte Laguntza.
c. Nahitaezko desjabetzea, kontratuak eta emakida administratiboak.
d. Turismoa eta kirola.

**47. KONSTITUZIOAREN ARABERA, ESTATUAK ESKUDUNTZA ESKLUSIBOADU HONAKO GAI HAUETAN, BATEAN IZAN EZIK:**

a. Lurraldearen antolaketa, urbanismoa eta ingurumena.
b. Aduanen eta muga-zergen araubidea.
c. Kanpo merkataritza.
d. Moneta sistema.

**48. EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA ESTATUTUAREN ARABERA, ZER AUZITEGIK EBATZIKO DITU EUSKADIKO ORGANO JUDIZIALEN ETA ESTATUKO GAINERAKOEN ARTEKO ESKUDUNTZA ETA JURISDIKZIO GATAZKAK?**

a. Auzitegi Konstituzionalak.
b. Auzitegi Gorenak.
c. Auzitegi Nazionalak.
d. Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak.

**49. EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA ESTATUTUAREN ARABERA, NORK IZENDATZEN DU EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO JUSTIZIA AUZITEGI NAGUSIAREN PRESIDENTEA?**

a. Erregeak.
b. Eusko Legebiltzarrak.
c. Lehendakariak.
d. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak.

**50. KONSTITUZIOAREN ARABERA, JUSTIZIAREN INDEPENDENTZIAREN ETA INPARTZIALTASUNAREN BERME GISA, EPAILEAK ETA MAGISTRATUAK BANATU, ALDI BATERAKO KARGUGABETU EDO LEKUALDATU AHAL IZANGO DIRA:**

a. Legean xedatutako kausetako bat gauzatzen denean soilik.
b. Ezagutzen den edozein kontutan.
c. Justizia Ministerioak hala eskatzen duenean.
d. Inoiz ez.

**ERRESERBAKO GALDERAK**

**51. GASTU PUBLIKOEI AURRE EGITEARI DAGOKIONEZ:**

a. Guztiek lagunduko dute, bakoitzak bere sarrera bolumenaren arabera.
b. Zerga sistema zuzen baten bidez egingo zaie aurre.
c. Zerga sistemak bilketa intentsiboaren printzipioa izango du oinarritzat.
d. Bilketa sistema konfiskagarria izango da kasu jakin batzuetan.

**52. EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA ESTATUTUAREN ARABERA, LEGE BIDEZ GARATU ETA BETEARAZTEKO ESKUMENEN KASUAN:**

a. Estatuari dagokio oinarrizko arauak ezartzea eta Autonomia Erkidegoari, berriz, horiek lege bidez garatzea.
b. Estatuari dagokio oinarrizko arauak ezartzea eta Lurralde Historikoari, berriz, horiek lege bidez garatu eta betearaztea.
c. Estatuari dagokio oinarri orokorrak ezartzea eta Eusko Jaurlaritzari, berriz, horiek arau bidez garatzea.
d. Autonomia Erkidegoari dagokio oinarri orokorrak ezartzea eta Lurralde Historikoei, berriz, horiek arau bidez garatzea.

**53. ALKATEAK ESKUORDETU DAITEZKEEN ESKUMENAK ESKUORDETU AHAL IZANGO DITU:**

a. Dekretu bidez.
b. Zerbitzu aginduen bidez.
c. Bando bidez.
d. Legegintzako dekretu bidez.

**54. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 39/2015 LEGEAREN 33. ARTIKULUAREN ARABERA, ZEIN ERREKURTSO AURKEZTU AHAL IZANGO DA PROZEDURA PRESAZ IZAPIDETZEKOA DELA DEKLARATZEN DUEN ERABAKIAREN KONTRA?**

a. Aukerako berraztertze-errekurtsoa, Akordioa agindutako organoaren aurrean.
b. Gora jotzeko errekurtsoa, hierarkian goragoko mailako organo agindu-emailearen aurrean.
c. Ezin da errekurtsorik aurkeztu, prozedura amaitzen duen ebazpenaren aurka jar daitekeenari kalterik egin gabe.
d. Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa.

**55. EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO 10/1982 OINARRIZKO LEGEAREN ARABERA, EUSKAL HERRIKO HERRITARREI HONAKO FUNTSEZKO HIZKUNTZA-ESKUBIDE HAUEK AITORTZEN ZAIZKIE:**

a. Irakaskuntza hizkuntza ofizial biotan izateko eskubidea.
b. Aldizkariak eta irrati-telebistetako eta beste hedabideetako emanaldiak euskaraz jasotzeko eskubidea.
c. Edozein bilkuratan euskaraz mintzatzeko eskubidea.
d. Erantzun guztiak zuzenak dira.

**56. OBREN EMAKIDA-KONTRATUAK EZIN IZANGO DIRA IZAN, LUZAPENAK BARNE, EPE HAU BAINO LUZEAGOAK:**

a. Berrogei urte.
b. Hogeita bost urte.
c. Bost urte.
d. Aukeretako bat ere ez da zuzena.

**57. LANGILEEN BARNE PROMOZIOKO ETA PRESTAKUNTZAKO NEURRIAK ETA DERRIGORREZKO MUGIKORTASUNEKOAK GIZA BALIABIDEEN ORDENAZIO PLAN BATEAN HITZAR DAITEZKE?**

a. Ez.
b. Bai.
c. Bai, derrigorrezko mugikortasuna izan ezik.
d. Bai, prestakuntza profesionala izan ezik.

**58. TOKI ADMINISTRAZIOAN LAN EGITEN DUTEN GAIKUNTZA NAZIONALIK GABEKO KARRERAKO FUNTZIONARIOEN ZERBITZU BEREZIEN AZPI-ESKALA ESKALA HONEN BARRUAN INTEGRATZEN DA:**

a. Eskala Teknikoa.
b. Administrazio Orokorreko eskala.
c. Eskala Laguntzailea.
d. Administrazio Bereziko eskala.

**59. TOKI ARAUBIDEAREN OINARRIAK ARAUTZEN DITUEN APIRILAREN 2KO 7/1985 LEGEAREN 106. ARTIKULUAREN ARABERA, TOKI ERAKUNDEEK ERREGELAMENDUAK EGITEKO DUTEN AHALA HONAKO HAUEN BIDEZ BETEKO DA:**

a. Beren tributuak arautzeko ordenantza fiskalak.
b. Kudeaketako, zerga-bilketako eta likidazioko ordenantza orokorrak.
c. a) eta b) erantzunak zuzenak dira.
d. Aurreko erantzunetako bakar bat ere ez da zuzena.

**60. KONSTITUZIOAREN ARABERA, EBAZPENAK IZANGO DIRA:**

a. Ziodunak beti, eta jendaurrean emango dira.
b. Ziodunak beti, eta Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.
c. Ziodunak eta auzitegian emanak.
d. Ziodunak eta posta elektronikoz jakinaraziak.

**B**

**Bilbao**
UDALA
AYUNTAMIENTO

# ERANTZUN ORRIA
# *HOJA DE RESPUESTAS*

| NAN / *DNI* |
|---|
| 0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 (×8 columns, unmarked) |

1. ABIZENA / *1er APELLIDO*: LEP 2022 EGONKORTZEA (OPOSIZIO LEHIAKETA)

2. ABIZENA / *2º APELLIDO*: INBERTSIOAK ERAKARTZEKO TEKNIKARI

IZENA / *NOMBRE*:

NAN / *DNI*:

DATA / *FECHA*:

KIDEGO EDO LANPOSTUA / *CUERPO O PLAZA*:

SINADURA / *FIRMA*

Sinatu laukitik atera gabe / *Firmar sin salir del cuadro*

MARKATZE ARGIBIDEAK
*INSTRUCCIONES DE MARCADO*

honela markatu
*marque así*

honela ez markatu
*así no marque*

**Azterketa eredua / *Modelo de examen*** A ◯ B ◯

| Galdera | Erantzuna | Galdera | Erantzuna | Galdera | Erantzuna | Galdera | Erantzuna | Galdera | Erantzuna |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | C | 21 | C | 41 | A | 61 | | 81 | |
| 2 | D | 22 | A | 42 | C | 62 | | 82 | |
| 3 | D | 23 | C | 43 | C | 63 | | 83 | |
| 4 | D | 24 | B | 44 | A | 64 | | 84 | |
| 5 | D | 25 | B | 45 | A | 65 | | 85 | |
| 6 | B | 26 | D | 46 | C | 66 | | 86 | |
| 7 | C | 27 | D | 47 | A | 67 | | 87 | |
| 8 | A | 28 | B | 48 | B | 68 | | 88 | |
| 9 | D | 29 | D | 49 | A | 69 | | 89 | |
| 10 | A | 30 | A | 50 | A | 70 | | 90 | |
| 11 | C | 31 | C | 51 | B | 71 | | 91 | |
| 12 | D | 32 | D | 52 | A | 72 | | 92 | |
| 13 | C | 33 | B | 53 | A | 73 | | 93 | |
| 14 | C | 34 | C | 54 | C | 74 | | 94 | |
| 15 | A | 35 | B | 55 | D | 75 | | 95 | |
| 16 | C | 36 | D | 56 | A | 76 | | 96 | |
| 17 | C | 37 | A | 57 | B | 77 | | 97 | |
| 18 | A | 38 | D | 58 | D | 78 | | 98 | |
| 19 | D | 39 | D | 59 | A | 79 | | 99 | |
| 20 | C | 40 | B | 60 | A | 80 | | 100 | |

(EZEZT. / ANULAR boxes under each question, unmarked)

Certificado: 922349 ©Copyright 2019 Dara Informática SLU. Todos los derechos reservados. http://www.dara.es/omr